

Jokalariai Euskal Herria zeharkatu behar du Jakue Bide nagusian zehar, mugatik mugara, eta behin helburura iritsita, itzuli ere egin behar du abiapunturaino.

Euskaldun ardiak gara, eta ardibideetan barrera egiten dugu aurrera: hortik jolasaren izena.

Jokalariai Ardi Laukian eroriz gero, hurrengo Ardi Laukira egingen du jauzi, zera esanez: **Ardiz Ardi**, eta berriz nire aldi. Dadoa berriz bota.

Beste lauki berezietako batean eroriz gero ordea, txanda bat edo gehiago gal ditzake, edo lauki kopuru jakin bat aurrera edo atzera egin, hala nola:

**6. eta 12. laukiak: ZUBIAK**

Aurrera edo atzera beste zubira arte zera esanez: **Zubiz-Zubi, dadoa isuri**. Dadoa berriz bota eta jarraitu bidea.

**19. laukia: OSTATUA**

Bi txanda dadoa bota gabe.

**26. eta 53. laukiak: DADOAK**

Aitzinera edo gibelera beste dadoetara, zera esanez: **Dadotik-dadora, bidezidorra**. Dadoa berriz bota.

**31. laukia: PUTZUA**

Itxaron beharra bertan, beste jokalaria bat erori arte; eta libratu den jokalaria, putzuan eroritako jokalariairean laukian kokatuko da bidea egiten jarraitzeko.

**42. laukia: LABIRINTOA**

Bi txanda galdurik.

**53. laukia: KARTZELA**

Hiru txanda bertan.

**58. laukia: HERIOA**

Hasieratik hasi behar du jolasa bertan eroritako jokalariai.

**63. laukia: BIDEMUTURRA**

Botaldiaren kopuru zehatz baten bidez soilik sar daiteke. Halaber, atzerako bidean 1. laukian sartzeko, Bidea bururatuz.

Jolasteko erak, bideak bezainbeste dituzu. Hala ere, bi modu nagusi nabarmentzen dira:

1.- Dadoa botaz, aurrera eta atzera eginez, zauden laukitxoaren fitxa irakurritz, bidaiaren abiapuntura iritsi arte.

Hala, Jakue Bidearen gaineko informazioa zurea egingen duzu.

2.- Dadoa botaz, aurrera eta atzera eginez bidaiaren abiapuntura iritsi arte.

Bata hala beste aukeratu... Josta gaitezen!